

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko otsailaren 14a

*

Harresiei buruzko ideiak ikusgai

■ Descalzos kaleko 72. zenbakian, Erraldoien Aretoan, Iruñeko Udalak antolatu Iruñeko Hirigune Historikoko Harresientzako Ideien Lehiaketako lan sarituak daude asteleheneetik ikusgai, hilaren 24ra arte. Datorren astelehenean, proiektuen egileek emanen dute euren proposamenen berri leku berean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, eta hilaren 24an mahai-ingurua egingen dute. Iruindarrek, beraz, izanen dute etorkizuneko harresiak nolakoak izanen diren ezagutzeko aukera. Iruñeko Alde Zaharrean gertatzen diren gauza gehienek bezala, iritzi kontrajarriak piztuko dituzte, ziurrenik, arkitektoek plazaratutako ideia ezberdinek. Eta mota guztietakoak badira. ■




Hainbat iruindar Harresietako Barbazana pasealekuan.

LUIS AZANZA

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Proteinak, bitaminak eta mineralak, eta hauetaz gain, nitrogenoa, oxigenoa eta karbonoko dioxidoak, guztiek —eltzearen barrenean— elkarren kontra joz, bortizki, dantza eta dantza egiten, mami zuriaren temperatura gora doan bitartean. Bero-gorakada nabari da berehalaxe: gas karbonikoa ugalduz doa etengabe eta aire burbuilak bizkor dabilta isurkitik zehar. Eltze hegiraino igo da esnegaina: Argentina osoa bor-bor bat da. Irrati aparailutik milonga melenga bat aditzen da Martaren sukaldean. Soinu goibela da, haren begirada bezalakoa. «Esne gozokia egiteko, erabil itzazu soil-soilik esnea, azukrea eta bainila. Ez ahaztu inoiz!», esango zion bere amak hamaika aldiz neskaxa zelarik. Baina oraingoan ere, beste askotan egingo zuen bezala —zenbat buruhauste ez ote zion ama zenak sortarazi bizardun hura senartzat hartu zuenean!—, ez zion kasurik egin. Irrifio egin zuen mal-

tzurki eta, kanela txotx batzuk apaletik oratuz, banan banan bota zituen eltze-
ra. Martak gogokoa zuen kanelaren kolorea, beste kolore bat burura baitze-
karkion ikusi orduko, bere seme baka-
rren begietakoa, alegia.

Esne gozokiak badu festa kutsua, bada haurtzaroen errotoak irudi usaintsuen ekarte bat-batekoa. Dastatuz bat, deblauki pizten da oroimena, eta orduan, oharkabean, galdutako denboraren bila zoazela ohartzen zara, harik eta Proust-en madalenarekin topo egin arte. Halakoxea da gozokia!

Esne gozokiak badu, bidenabar, sinpletasunak dakarren perfektzioa. Hiru osagai baino ez dira behar: behi-esnea, azukrea eta bainila. Dena den, eltze-
ari kanela, limoi azala, txokolate xehetua, intxaur puskak, arraultza eta besterik gehitzen dizkionik ere bada. Puristen atsekabea! Atontzeko tresnek, bestalde, kobrez behar dute izan. Hori egin

ezean, zio misterioitsu batengatik edo, esnea beti itsatsiko baita hondoari. Azkenik, gozoki on bat egingo bada, nahitaezkoa da ama bat tartean izatea, eta Marta ama bat da, senarra eta seme bakarra gabea, biak 76ko apirilko egun hartan *hurrupatuak*.

Bi orduz jardun du Martak esnekia eragiten, bi orduz bere baitara bildua, eta emeki eragindako bira bakoitzean bere bi gizon kaneladunak irudikatu ditu eltzetik irteten, esnegainaren bor-borrean. Larunbatero, askaria prestatzen duen guztietan, sentitu ohi du fantasia bera. «Jaten dakienak, badaki itxaroten», errepikatzen du maiz lelo gisa.

Usaimenak esaten dioenez, gozokia prest dago jadanik. Mantso jaiki da aukitik, eta, hiru plater eta hiru kutxeta armariotik hartuz, mahaian paratu ditu itxaropentsu. Arratsaldeko seiak joak ditu ordulariak, erraina eta iloba laster izanen ditu etxean. X

Marta

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Zubiri: Drindots taldearekin gaupasa egiteko aukera dago Gautxori aretoan bihar gaueko 01.00etik aitzina.

Aitzoain: Skunk eta Kargols taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 14, gaueko 23.30etan Artsaia aretoan. Sarrerak 600 pezetan daude salgai (25 libera). Bihar, berriz, Latzen eta Larrua Truk izanen dira ordu berean. Sarrera 800 pezeta kostako da (35 libera).

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Charo Monjeren margoak herriko kultur etxean izanen dira gaurtik otsailaren 26ra arte.

Burlata: Gregorio Arbeloa Irigoien oleoak eta akuarelak ikusteko parada dago Kultur Etxean otsailaren 20ra arte. Erakustaretan asteleheneetik larunbatera arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara egoten da zabalik eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Iruñea: Desagertzeko zorian dauden herri buruzko argazki erakusketa izanen da Iruñeko Udalaren Zaperaria kaleko erakustaretan otsailaren 25era arte. Argazki guztiak Magnum agentziarenak dira.

Iruñea: Nafarroako Museoa XVII. mendeko pintura barroko flandriarrari buruzko erakusketa dago zabalik martxoaren 2ra arte. Museoa zabalik dago 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara asteartetik ostiralera, eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.

Iruñea: Pintzel Galerian Belen Flamarique eta Rosa Silvaren lanak daude ikusgai otsailaren 2ra arte.

BESTELAKOAK

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkar-teak diapositiba emanaldia antolatu du gaur, Jarauta kaleko 78.ean duen egoitzan. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izanen da.

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkar-teko Mendi Eskolak mendi ibilaldia egingen du etzi, igandea. Irteeran Lizarra-Bisaurin-Gabardito parajeak gozatzeko parada dago. Izena eman nahi duenak honako telefono hauetara deitu behar du: 22 43 42 -22 98 20, edota egoitzatik pasatu.

Iruñea: Frantsesez hitz egiten badakizu, frantsesez mintzatzea gustatzen bazaizu, eta ez bada-kizu norekin solastu frantsesez, hurbil zaitez Niza kafetegiko lehen solairura. Bertan, asteartero arratsaldeko 20:30etatik aurrera frantsesezko mintza-praktika egiten dute.

nafar kronika

Alberto Barandiaran


Omenaldia Polikarpo Iraizozkoari

Aita Polikarpo Iraizozkoari omenaldia egingo dio Euskaltzaindiak martxoaren 22an bere jaioterrian, kaputxino hark egin zuen lana gorestekoa eta bere gainean erori den ahanzturari argitasun pixka bat emateko. Protokolozko ekitaldia izango bada ere, horrelakoek ematen ohi dute parada gizonen memoriari hautsa kendu eta apur bat astintzeko, eta, hala bada, egin dezagun hemendik ere.

Polikarpo 1897an jaio zen Iraizotzen, eta Altsasun, Zangozan, Hondarribian eta Iruñean ikasi ondoren, Suitzara joan zen filofia ikas-tera, Euskaltzaindiak lagunduta. Iruñera atzera itzuli eta Lekarozko ikastetxean egon zen hogei urtez irakasle. Erröman izan zen gero 22 urtez Ordenako idazlari nagusi, eta 1972an Lekarozera itzuli zen, 1980an hil zen arte. Kaputxino nafar askok bezala —Damaso Intzakoa, Jorge Riezukoa...— izugarriko garrantzia izan zuen gerra aurreko urteetan euskal gaiek izan zuten jorrate hartan, eta esan daiteke beraiekin euskalgintzak lorpen oso dotoreak izan zituela, gero kostata lortuko lukeen maila eduki zuela.

Gerra etorri zen ondoren, kaputxinoak gaizki ikusiak izango ziren aurrerantzean, eta horietako askok atzerrira joan behar izan zuten. Desegin zen lan loriatsua, barreiatu ziren aha-legendak eta artxibo asko galdu edo ezkutatu egin ziren, betiko desagertzeko ziren beldurrez. Produkzioak etena izan zuen eta inoiz ez zuen atzera berreskuratu aurreko urteetako tentsio hura. Polikarpo Iraizozek, esate baterako, lan asko argitaratu gabe utzi zituen, horien artean sonetu, salmu, sermoi (Baztango euskaraz), Nafarroako eta liburu zaharretako hitz zerrendak...

Frantzisko Ondarra izan daiteke nafar kaputxinoen belaunaldi oparo horretako azkena. Berak ere aitortu zuen aspaldi ez dela, orri hauetan, euskalduntasunik ez zegoela jada kaputxinoen artean, bera bakarrik zegoela. Ez dirudi inoiz berpiztuko denik, besteak beste gizartearen beste arlo zabalagoek hartu dutelako euren bizkarrean lana. Hala ere, urte horietan euskarari emanak bizi izan zirenen lana sailkatu, artxibatu eta ezagutarazi beharko li-



tzateke behingoz. Jorge Riezuren kantutegia laster argitararuko da berritua. Izan dadila Euskaltzaindiaren omenaldia aitzakia Iraizozko kaputxinoaren lanarekin antzeko zerbait egiteko.

asteko pertsonaiak



Unai Salanueva
Intsumisosa

■ Iruñeko Txantrea auzoan hirugarren solairutik erorita hartutako kolpeen ondorioz hil zen astelehen gauean Unai Salanueva intsumisosa iruindarra. Zantzu guztien arabera, bere burua bere logelako leihotik botata hil zen 22 urteko gaztea. Salanueva duela bi aste espetxeratu zuen Polizia Nazionalak, eta hil zen egun berean bigarren gradutik hirugarrenera pasatua zen. Familiak uste du ezin izan zuela kartzela jasan, eta egunero gaueko hamarretan gaua pasatzera joan behar izana jasanezina egingen zitzaioela. Salanueva langabezian zegoen, eta ez zen inongo intsumisota taldetako partaide. Iruñeko Alegria peñako kide zen, eta ikasketak Paz de Ziganda ikastolan eta Irubide Institutuan egin zituen.



Isabel Arbonies
IU-EBko parlamentarioa

■ Nafarroako IU-EBko parlamentario berria da Isabel Arbonies. Joan den asteartean hartu zuen kargua Foru Komunitateko Parlamentuan. Kargua utzi berria duen Pablo Lorente parlamentarioa ordezkatu du Arboniesek aurrerantzean. Kargu hartzean Legebiltzarrerara heltzeko modurik ez duten taldeen ahotsa izan nahi duela azpimarratu zuen. Beraz, gutxiengo sozialak eta baztertuak defendituko ditu. Horretarako bere lana eta ahalegina gizarte ongizate, hezkuntza eta osasun arloetara zuzenduko du. Parlamentario berria 1952an jaio zen, bereizita dago eta bi seme-alaba ditu. Irakasletza ikasi du, eta Bidean taldeko koordinatzailea da, ezintasun fisiko zein psikikoak dituztenen taldekoa.

ahaztu gabe!



EUSKAL TXOKOA

Karrikiren aurkezpena: KARRIKIRI Iruñeko euskaldunontzat euskal txoko bat sortzeko asmoz duela pare bat urte martxan jarri zen egitasmoa gorpuzten ari da. Jendaurrean agertzeko garaia badela pentsatuta, gaur arratsaldeko 19:30etatik aitzina egoitza inauguratuko dute, eta, bidenabar, Karrikiren asmoak eta helburuak ezagutaraziko dituzte. Iruñeko euskaldun guztiak daude gonbidatuak. Karrikiren helburu nagusia Nafarroako hiribuan euskaraz bizi eta euskarari bizitza ematea da. Taldean dabiltzanak biltzen dituen euskal itaera da, euskarari dioten maitasuna. Beraz, partaide eta euskararen alde lan egiteko prest dauden euskaldunen zain dago Karrikiri. Zenbat eta gehiago izan, hobe! Orain arte lau lan talde abiatu dituzte; hausnarketaz, zerbitzuez, azpiegituraz eta irudiaz eta komunikazioz arduratuko direnak. Gainera, martxoaren hileroko ataratzeko asmoa duten lehenengo buletia karrikaratu dute. Gaurkoan hurbiltzen denak jakia eta edaria asetzeko adina izanen du, eta ondoren, urdaila ongi betetakoan, dantza eta solasaldia egiteko parada izanen du.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, Zokobetaillu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Irati Irratia FM 107.7n eta 103.8n

Ostiralero Txirristi-Mirristi haurrentzako saioa 12.30etan.

Baztan-Malerreka-Bidasoa



Bidasoa Ikerketa Zentroko kideek Bertizen joan den ostiralean egin agerraldia.

AITOR AROZENA

Bidasoa Ikerketa Zentroa abian

Baztan, Malerreka eta Bidasoako zenbait lagunek sortu dute elkarte berria

Edurne Elizondo / Bera

JOAN den ostiralean elkarte berri batek bere burua ezagutzera eman zuen jendaurrean: Bidasoa Ikerketa Zentroa. Bertizko Jaurerriko jauregian prentsaurrekoa eskaini zuten kideek. Fernando Mikelarena historialari beratarak bultzatuta sortu da —bera da lehendakaria—, eta bertan, Baztan, Malerreka eta Bidasoako jendea bildu da.

Lehenengo bilera iazko ekainean egin zuten, baina irailera arte ez zuten elkarte osatzeko erabakia hartu. Eskatera aurkeztu eta urrian allegatu zitzaizten Nafarroako Gobernuaren onepena. Elkarte sortuta, lanean hasteko garaia zen.

Helburuei dagokionez, argi eta garbi dute Bidasoa Ikerketa Zentroko kideek egin nahi dutena: «Gure gizarteko hainbat alderdi ikertu. Halaber, tokiko historia- ren berri jaso nahi dugu ezagutzera emateko, ikastetxeetan ikasi ahal izateko. Ikerketa egin ezezik, ikertu nahi duten guztientzat elkarte erreferentzi bilakatzeko lortu nahi dugu», azaldu digu Izaskun Abril Bidasoa Ikerketa Zentroko idazkariak. Ikerketetan parte hartzeko eta iker-tzen ikasteko aukera eskaini nahi diete elkarteko kideek eskualdeko ikasleei, oro har.

Landuko duten esparrua, bestalde, Baztan, Malerreka eta Bidasoa aldekoa izanen da printzipioz, baina taldekideek ez dute baztertzen euren lana Nafarroako

Bidasoa Ikerketa Zentroak bere burua ezagutzera eman zuen joan den ostiralean, kideek Bertizko Jaurerriko jauregian eskaini prentsaurrekoan. Fernando Mikelarena historialari beratarak bultzatuta sortu da elkarte berria eta Baztan, Malerreka eta Bidasoako kideak biltzen ditu. Aurten, baserria aukeratu dute ikertzeko gaitzat.

zonalde euskaldun osora zabal-tzea. «Garrantzitsuena lan dinamika sortzea da, iraupena lortzea eta poliki-poliki aurrera egitea».

Bidasoa Ikerketa Zentroko kideak jakintza arlo ezberdinetatik etorritakoak dira: soziologiatik, antropologiatik, geografiatik, historiatik... eta lan egiterakoan ere, jakintza arlo hauek guztietatik heldu nahi diete gai ezberdinei. Gaiak dagokionez, proposamen ugari egin dituzte jada Bidasoa Ikerketa Zentroko kideek: nekazaritza, industrializazioa, familia, komunak, abereak, eta abar luze bat. Urtero gai bakarra izanen da protagonista.

Euren ibilbideari hasiera emateko, baserria hartu dute gaitzat elkarteko kideek. Izaskun Abriek azaldu digu zergatik: «Baserria hagitz ezaguna da gure artean, beraz, gure, elkarrearen eta biztanleen arteko harremana sortzeko gai aproposa dela uste dugu. Finean, jendeak egiten

duguna ezagutu dezan lortu nahi dugu, bestela ez baitu zentzurik gure lanak. Gu ezagutu ezezik, guregana hurbildu daitezten lortu nahi dugu ere».

Bidasoa Ikerketa Zentroko jarduerak atal ezberdinak izanen ditu urtean zehar. Urtean behin, hain zuzen, *Iraun* izeneko jardunaldiak antolatuko dituzte. Jardunaldien barruan, hitzaldi zikloa eta erakusketa prestatuko dituzte. Eta ikerketa, bi atal hauei begira egingen dute. Gai bakoitzaren inguruko ikerketaren ondorioak jaso eta argitara emateko aukera ere ez dute baztertzen taldeko kideek. Izaskun Abriek azpimarratu nahi izan duenez, «historian zehar gertatu dena aztertu ezezik, gure lana etorkizunari begiratzea ere izanen da».

Aurtengo irailean baserriaren inguruan egingen dituzten hitzaldiei buruz, gonbidatuen zerrenda prestatzen hasi dira Bidasoa

Ikerketa Zentroko kideak. Jose Ramon Cruz Mundet eta Jose Cruz Urrutikoetxea arduratuko dira baserriaren ikuspegi historikoa azaltzeaz, eta Miren Etxezarretan ekonomilaria, Helen Groome geografoa eta Fernando Merino ekonomilaria baserria egungo gizartean kokatuko dute.

Hainbat erakunde eta talderekin harremana • Bidasoa Ikerketa Zentroa eskualdean dagoen hutsunea bete asmoz sortu da. «Tokiko historia aztertzeko ohiturarik ez dago hemen, munduko historia irakasten dute ikastetxeetan bertakoa irakatsi ordez», nabarmendu du Izaskun Abriek. Orain arte ere, ez da halako egitasmoa abian jartzeko ekimenik egon elkarteko idazkariak gogoratzen duenez: «Banaka saiatu izan dira batzuk, baina euren saioek ez dute jarraipenik izan. Eta ez dugu ahaztu behar, lanean hasten ez bagara, gauza asko galdu daitekeela une honetan. Gero eta gazte gehiago ari da ikasten eskualdean, eta euren jakintzan eragina izan dezake eskualdean ere. Hori aprobetxatu egin behar dugu».

Euren eguneroko jardunean, bestalde, erakundeen laguntza ere lortu nahi dute Bidasoa Ikerketa Zentroko kideek. Nafarroako Gobernuarekin lankidetzaren harremana izan ezezik, eskualdean kultura eta turismoaren garapenera interesatzen duten herri mailako eta eskualde mailako erakundeekin ere lortu nahi dute. X

Tafalla

Inauteriak atzo hasi ziren eta asteartera arte iraungo dute

■ *Astebete atzeratu dituzte herriko feriak zirela eta*

Erredakzioa / Iruñea

INAUTERIETAKO egun nagusiak igaro badira ere eta Nafarroako herri gehienetan joan den asteburuan ospatu bazituzten ere, Tafallara atzo iritsi ziren mozorro egunak, eta herrian geldituko dira datorren asteartera arte. Aurten astebete beranduago ospatuko dituzte, inauterietako asteburuan herriko feriak egin zituztelako Tafallan. Udalak eta Peñen Batzordeak antolatuko dituzte inauteriak, urtero bezala.

Inauteriak atzo hasi baziren ere, gaur ikusiko dira herriko kaleetan lehenengo mozorroak. Eguneko ekitaldi nagusia Laguneroren erronda izanen da. Arratsaldeko zortzi eta erdietan Kultur Etxetik abiatuko da, zantzarrek, Hilargi fanfareak eta mozorroek lagunduta, eta herriko kaleak zeharkatu ondoren, Lau Izkinetan bukatuko da. Bertan, Tafallan hainbat tira-bira sortu zituen militar espainiarra irudikatzen duen Lagunero panpina urkatu egingen dute. Inauteri guztietan bertan izanen da, azken egunean erre arte.

Larunbata haurrentzako ekitaldi ezberdinekin hasiko da. Arratsaldeko bostetan Lindux Amapolux txotxongilo taldeak bere ikuskizuna eskainiko du, eta arratsaldeko zazpitan haurren mozorro desfilea egingen dute. Arratsaldeko zortzietan zezen suzkoa izanen da. Gau partean, gazte eta helduen txanda. Gaueko hamabi eta erdietatik aurrera dantzaldia izanen da plazan.

Igandean, eguerdian, inauterietako desfilea edo erronda egingen dute herriko haur eta gazteek. Mozorrotutako herriarrek batera, eraldi eta buruhandien konpartsa, gaiteroak, txarangak eta zantzarrek izanen dira Tafallako karriketan barrena. Arratsaldean, bostetatik aurrera, haurrentzako dantzaldia izanen da, eta seletan, kalejira txarangarekin. Arratsaldeko zortzietan inauterietako azken zezen suzkoa aterako da kale- ra.

Astelehena lasaia izanen da asteburuko ekitaldien ondoren, eta arratsaldeko seletan zinemaren *La familia stupid* filmaren emanaldia izanen da eguneko ekitaldi bakarra. Asteartean, azkenik, inauterietako agur erranen diete Tafallako herritarrek. Arratsaldeko zortzi eta erdietan hasiko da inauterietako agurra. Gaiteroek lagunduta, Laguneroren panpina erre egingen dute Pasabideko plazaxoan. X

Izaskun Abril: «Garrantzitsuena lan dinamika sortzea da, iraupena lortzea eta poliki-poliki aurrera egitea»

Etorkizuneko harresien
proiektuak ikusgai

Etorkizuneko harresiak

Etorkizuneko harresiak izanen diren irudia prestatzen ari dira egun hauetan Iruñeko lau arkitekto talde. Iruñeko Udalak antolatu Iruñeko Hirigune Historikoko Harresientzako Ideien Lehiaketako irabazleak dira, *Grey*, *Viaje*, *Jerico* eta *Ya'mura* proiektuekin. Euren proposamenak ugariak eta ezberdinak dira: *Liburutegi Nagusia Santo Domingon*, galeria komertzial handia *Redingo bastioian*, lur azpiko aparkalekua *Labriten...* Proposamen horiek guztiak gehiago zehaztu eta etorkizuneko harresien plana osatzeko lanean hasi dira. Nornahik ikus ditzan, proiektuak Erraldioen Aretoan paratuak daude.

Edume Elizondo / Iruñea

ASTELEHENAZ geroztik eta hilaren 24ra arte Iruñeko Udalak antolatu Iruñeko Hirigune Historikoko Harresientzako Ideien Lehiaketako lan sarituak daude ikusgai, Descalzos kaleko Erraldioen Aretoan. Erakusketa ezezik, beste hainbat ekitaldi antolatu ditu Iruñeko Udalak lehiaketaren inguruan, iruindarrek bertan jasotako ideia eta proposamenen berri izan dezaten. Astehenean, hain zuzen, lan sarituen egileek beraiek azalduko dituzte euren proiektuen xehetasunak. Erraldioen Aretoan, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera. Eta hilaren 24an, Iruñeko harresien etorkizunari buruz mahai-ingurua egiten dute leku eta ordu berean.

Ideien Lehiaketako lan sarituen erakusketa aste honetan zabaldu bada ere, erabakia izako urriaren 10ean jakinarazi zuen epaimanahiak. Lehenengo saria eman gabe gelditu zen. Bigarrena —milioi bat pezetakoa— *Grey* eta *Viaje* proiektuentzat izan zen, eta hirugarrena —milioi erdi pezetakoa— *Jerico* eta *Ya'mura* lanentzat. Xavier Cherez arkitektoaren *Amantes* proiektuak epaimahaiko kideen aipamen berezia jaso du.

Harresien etorkizunaren inguruan arkitektoen ideiak jasotzeko lehiaketaren asmoa, Iruñeko Udaleko Alde Zaharrerako Saitetik ezarri arau edo ildoen bidez sortu zen. Arau horien bitartez, hiriko gune historikoari Iruñeak zer eskatu nahi dion argitu nahi du Udalak, eta bi ardatz nagusi dituzte: Alde Zaharreko eraikinen azterketa —ideien lehiaketa jarri du abian Udalak arlo honetan ere— eta harresien azterketa bera.


Harresien azterketari dagokionez, guztira hamalau taldek aurkeztu dituzte euren proposamenak, «oso ezberdinak, anitzak planteamendu aldetik», azpimarratu du Enrique Maia Iruñeko Udaleko Birgaitze Bulegoko arkitektoak. «Oso eraikin, erabilpen eta jarduera ezberdinak proposatu dituzte, harresien oso zati ezberdinetan. Proposamenak

aztertu eta garatzeko unea da orain, Iruñeko harresiak hiriko oinezkoentzako ardatz bilakatu daitezten, eta hiriko biztanle guztien arteko lotura izan daitezten».

Lehiaketan jasotako proposamenak garatzeko lanean hasi dira jada lau talde sarituak. Bakoitzak harresien inguru jakin batean egingo du lan, eta inguru garrantzitsuetan —Redin eta Labriteko bastioietan, besteak beste— bi talde ariko dira batera. *Grey* taldeko kideek Redingo bastioiaren eta Nafarroako Museoaren arteko zatia landuko dute; *Viaje* taldekoak Sarasatearen eta Errekoleten plazaren artean, Estafetaren bukaeraren eta Labriten arteko zatian eta Labriten eta Media Lunaren arteko gunean izanen dira; *Ya'mura* taldekoak Redingo eta Labriteko bastioien artean; eta *Jerico* taldekoak Santo Domingo enparantzaren eta Atari Berriaren artean, eta Harresiaren eta Errotxapea auzoaren arteko loturan.

«Taldeen lanetik aterako da etorkizuneko harresiek izanen duten itxura». Ez da ahaztu behar, dena den, lehiaketan parte hartu duten hainbat arkitekto azpimarratu dutenez, Iruñeko Udalaren aurrekontua mugatua dela eta taldeek proposatutako ideia guztiak ezin direla epe motzera egin. Guztiak jaso eta plana osatzeko asmoa du Iruñeko Herriko Etxeak.

Enrique Maiak azpimarratu duenez, erakusketaren bitartez iruindarrek jakin ahal izanen dute arkitektoek esku artean dutena. «Proposamenek mota guztietako erreakzioak sortuko dituzte, batzuen onarpena eta beste gaitziritzia», dio. Iruñeko Alde Zaharrean egindako lanak, azken batean, iruindar guztien begiradapean izan dira azken aldian —adokinen afera da horren adierazgarri— eta etorkizuneko egingo direnak ere hala izanen dira. Enrique Maiak gogoratu duenez, hala ere, Udalak ezarri ditu mugak. Harresiei buruzko ideien lehiaketan, zehazki, estetika, ondare historikoarekiko begirunea eta posibilitismoa izan dira arkitektoek kontuan hartu behar izan dituztenak. X



Redingo bastioiaren eta Nafarroako Museoaren arteko zatian egiten du lan Grey-k.

LUIS AZANZA

'Grey': Liburutegi Nagusia Santo Domingon

FRANCISCO JOSE MANGADO eta Alfonso Alzugarai arkitektoak dira, Carlos Pereda eta Mikel Saenzekin batera, *Grey* proiektuaren egileak. Abiapuntutzat, Iruñeko harresiek duten ahalmena —nahiz eta orain baztertuta egon— hartu dute, euren indarra. «Paseatzeko espazioa ezazki, jarduera eta ekintza ezberdinak sortzeko gai dira harresiak», gaineratu du Alfonso Alzugarai arkitektoak, «gure ustez kultura eta aisialdiarekin lotuta egon behar lukeanak».

Grey taldearen lanaren mamia, beraz, harresietako bastioi eta espazio handietan kokatu da nagusiki. Rendingo bastioian, has-

teko, hustu eta adibidez arte garaikideko museo bat jartzea proposatu dute taldekideek. «Harresiak berdin jarraituko du kanpoko aldetik, baina erabilera berriak iruindarrek erakarri egingo ditu bertara».

Azken urteetan hainbat arazo eta eztabaida sortu dituen Liburutegi Nagusiaren kokapena, bestalde, Santo Domingoko parkean ezarri konpondu du *Grey* taldeak bere proposamen edo proiektuan. Alfonso Alzugaraiaren hitzetan, gune horretan, «hutsune historikoa» dago gaur egun eta Liburutegi Nagusia bertan ezarri Iruñeko kultur foroa osatuko litzateke, «ondoan baitaude

Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Nafarroako Museoa, eta Artxibo Nagusia ere bertan kokatuko baitute». Era berean, Liburutegi Nagusia Santo Domingoko parkean kokatuz gero, «eraikina bera, Erret Jaurgiaren eta Nafarroako Museoaren arteko lotura izanen lirakeke, harresiari jarraitpena emanez».

Bi proposamen nagusi hauek ezezik, bestelakoak ere egin ditu *Grey* taldeak. Es-laba kalearen bukaeran, adibidez, *Jerico* proiektuko taldekideek bezala, Descalzos kaleko belena zabaltea proposatzen dute arkitektoek, «harresiei iragazkortasuna emateko». Ildo berean, Artzapezpikutza-ko jauregia katedralarekin lotzen duen aldea bertan behera botatzeko aukera jasotzen du Mangado eta Alzugaraiaren proiektuak, bien arteko bidea ezartzeko.

«Harresien garrantzia nabarmentzeko eta benetan hiria bertara erakartzeko, gure ustez behar-beharrezkoa da proposamen sakon eta sendoak egitea», azpimarratu du Alfonso Alzugarai. Bera, baina, ez da batere baikor, eta ez du uste Iruñeko

Udala aldaketa sakonak egiteko gai izanen denik. Eta bere ustez, lehiaketaren lehenengo saria eman gabe gelditu izana bada horren adierazle. «Galtzadarriak direla eta, halako polemika piztu bada, harresien kontuan ere hitarrak bere aurka jarriko diren beldur da Udala», nabarmendu du Alzugarai.

«Gaizki hasi dira gauzak», azaltzen du *Grey* taldeko arkitektoak, eta bere ustez, gaizki jarraitzen ari dira: «Proposamenak gehiago zehazteko lanean hasi gara, baina Udalak erabaki duenez, leku garrantzitsuetan bi talde ariko dira batera. Ezkutuko beste lehiaketa bat da hau». Aurrekontua ere arazo garrantzitsua da Alzugaraiaren ustez, «baina ez nahikoa ezer ez egiteko. Aldaketa sendoak egiten hasteko garaia da, poliki-poliki bada ere». X

Hamalau taldek aurkeztu zituzten proiektuak lehiaketara. Lehenbiziko saria eman gabe utzi du epaimahaiak

Etorkizuneko harresien
proiektuak ikusgai

'Jericó': harresia zeharkatuz

FERNANDO TABUENCA eta Jesus Leache arkitektoek egin dute *Jericó*, Xabier Agirre, Luis Fernandez, Miguel Muñoz, Federico Rodriguez Parets eta Arturo Perez-Espinosarekin batera. Talde honentzat, harresiak baino gehiago, harresiek Alde Zaharrean duten eragina da arazo nagusia. «Harresiak Iruñeko elementu oso garrantzitsuak dira, zaindu egin behar ditugu eta kontserbatu. Baina onartu beharra dago harresien gerrikoak kalte egiten diola Alde Zaharrari. Iparralde eta ekialdean ez dago mugimendurik, ez dago jenderik, eta horrek ingurua pobretzen du», azaldu du Fernando Tabuencak.

Hori da *Jericó* lanean bildutako proposamenen abiapuntua. «Gure helburua iruindarrak harresien ingurura eramatea zen». Eta horretarako, bi bide daudela azpimarratu digu Tabuencak: harresien eta inguruko auzoen —Errotxapea eta Txantrea— arteko lotura ezartzea, eta harresien ertz edo bazterretan jendea erakarriko duten jarduerak kokatzea.

Xedea lortzeko, harresietako hiru gune zehatzetan lan egitea funtsezkotzat jo du Tabuencak: Eslava kalean, Santo Domingoko baratzetan eta Barbazanako errondan. Eslava kaleari dagokionez, gune horren eta Errotxapeako zubiaren artean oinezkoentzat komunikazio bidea ezartzea proposatzen du *Jericó*-k. Horretarako, zubia eta Errondako pasealekuaren arteko lotura ezarri beharko litzateke lehen-dabizi, eta ondoren, Descalzos kaleko belena zabaldu. «Horretarako bi etxe bota beharko genituzke, eta eraikin berri bat egin familiak bertan kokatzeko. Honek, bertan kafetegia txiki bat jartzeko aukera emanen liguke, gune paregabea».

'Viaje': espazioak ireki

VIAJE proiektuak, Francisco Jose Mangado eta Alfonso Alzugarrairekin batera, bigarren saria eskuratu du Iruñeko Udalak antolatutako lehiaketan. *Viaje* Carlos Urzainki arkitektoaren eta Fernando Oizak eta Eduardo Urdiain bere laguntzaileen lana da. Beste proiektuek ez bezala, harresietan eraiki ordez, espazioak askatzea proposatzen du *Viaje*-k.

Fernando Oizak azaldu duenez, harresiei beraiei ematen diete garrantzia taldeko kideek lan honetan, baita bere inguruan eta leku berezi eta estrategikotan historian zehar ezarri diren eraikin enblematikoei ere. «Dauden lekuan ongi daudela uste dugu. Beraz, eraikin horien garrantzia areagotzeko eta harresien eta hiriaren arteko harremanak hobetzeko, egitura bat sortu dugu: harresia hustu eta espazioak ireki ditugu».

Oko plazaren eta Nafarroako Museoaren artean hasi dira taldekideak espazioak irekitzen. «Zaharkituta dauden etxeak ba-

Araza, beste talde askoren proposamenek agerian utzi duten bezala, Errotxapea eta Eslava kalearen arteko lotura nola ezarri da. *Jericó* lanean bildutako proposamenek bi bide aztertzen dituzte: eskailera arruntan bidez, edo modu mekaniko baten bidez. Mekanikoki eginda, bi aukera berri daude: «Igogailua edo eskailera mekanikoak. Guk eskailera nahiago ditugu».


Erret Jauregiaren eta Nafarroako Museoaren arteko gunean, Iruñeko Udalak onartu lur azpiko aparkalekua egiteko proiektua hartu dute abiapuntutzat Tabuencak eta bere taldekideek. Gune horretan, Errondako pasealekuaren etenaldia pasabideen bidez konpontzen du *Jericó*-k. Halaber, aparkalekuaren gainean begiratokia ezartzen du. Barbazanako errondan ere, lurrazpiko aparkalekua da taldekideek proposatu duten aukera. Eta bertara Tejeriako parketik ailegatzeko, sarbidea ezartzen dute harresien behekaldean.

Harresietan bertan ez badago ere, San Agustin kaleko Euskal-Jairako ere badu proposamenik Tabuencak eta Leacheren *Jericó*-k. Pilotalekuari eutsiz, herri enparantza egiteko aukera aipatzen dute arkitektoek. «Alde Zaharrean hain beharrezkoa den espazio ireki bat sortuz».

Jericó lanean bildutako ideiak aztertuz, euren proposamenak kontserbazioaren aldekoak direla azpimarratu du Fernando Tabuencak: «Gure helburua harresiari eta egun duen irudiari eustea da, baina bera zeharkatzen dituzten sarbideak ezarri, harresiari bi atari berri gehituz». *Jericó* proiektuari buruz, «gutxieneko elementuekin erabilpen errentagarritasun handiena» lortzen duen proiektua dela gaineratu du Tabuencak. X

dira bertan, urteetan bertan kokatu direnak. Espazio hori berreskuratu nahi dugu». Horretarako, hainbat etxe bota egin beharko litzateke. Descalzos kaleko haurtzaindegiko eraikina ere botatzeko aukera proposatu dute *Viaje* proiektuaren egileek: «Hori botata, bi eraikin berri egin ahal izanen lirateke, bat haurtzaindegi berria izanen zena, eta beste bat, adibidez, zaharrentzat».

Labrit pilotalekua botatzearen aldeko apustua egin dute taldekideek. «Estafetaren bukaeraren eta Labriteko bastioiaren artean harresi horma garrantzitsua zegoen, gero desagertu zena. Guk harresiaren zati hori berreskuratzeko proposamena egin dugu». Horren arabera, Labrit pilotalekuak dagoen lekutik desagertu beharko luke, «Estafetaren bukaeratik Labriteko bastioira arteko jarraipena lortzeko. Labrit hor dagoenez, jarraipen hori ezin da lortu, eta jendearentzat ez da erakargarria», azaldu du Fernando Oizak.



Santo Domingon, Museoaren eta Erret Jauregiaren arteko lotura proposatu du *Jericó*-k.

LUIS AZANZA

'Ya'mura': Redingo bastioian galeria komertziala

ANTONIO VAILLO arkitektoak, David Torres, Ibon Ibarluzea eta Michel Arauzorekin batera, *Ya'mura* izeneko proposamena aurkeztu zuen ideia lehiaketan. Lan honekin, Fernando Tabuencak eta Jesus Leacheren *Jericó* lanarekin partekatuz, hirugarren saria eskuratu du.

Antonio Vaillok argi dauka: «Iruñeko Alde Zaharra zuzpertzeko modu bakarra, harresietan ekintza berriak sortaraziko dituzten erabilpenak kokatzea da». Eta, bere ustez, erabilpen edo jarduera komertziala da Alde Zaharra berpiztuko duena. Hori dela eta, *Ya'mura* proposamenaren ardatza edo mamia Redingo bastioian kokatzen du Antonio Vaillok. Bertan, hain zuzen, merkataritza gune handi bat ezartzeko

proposamena egin dute Vaillok eta bere taldeak.

Labriteko bastioian, berriz, Nafarroako Antzerki Eskola kokatzen du *Ya'mura*-k, eta horrekin batera, Labriteko kirol instalakuntzak handitzea eta lur azpiko aparkalekua egitea proposatzen du. Santo Domingoko baratzetan eremuan ere, Iruñeko Udalak jada onartu bezala, lur azpiko aparkalekuaren aukera da Vaillok hautatu duena, kafetegia eta merkatu gune txiki baten batera.

Redingo eta Labriteko bastioietan eta Santo Domingoko baratzetan kokatu eraikinak *Ya'mura* laneko proposamen garrantzitsuenak eta nagusiak badira ere, beste hainbat ideia plazaratu ditu Antonio Vailloren

taldeak Iruñeko lehiaketarako. Izan ere, arkitektoak azpimarratu duenez, «funtsezkoa baita eraikin horietara heltzeko bideak zabaltzea». Beraz, harresiaren behekaldean, besteak beste, aparkalekuak eta kirol jardueretarako zentruak aurreikusten ditu Vailloren lanak. Redingo bastioiko gune komertzialera iristeko bidea litzateke garrantzitsuenetakoa. Bide hau, arrapala eta igogailuen bidez egingo luke Vaillok, Errotxapeako zubi zaharra harresiekin lotuz.

Labriteko bastioia Media Lunako pasealekuarekin eta Nafarroako Museoaren Erret Jauregiarekin lotzeko, lehiaketan parte hartu duten talde gehienek bezala, pasabideak kokatzea proposatu du Vaillok *Ya'mura*-n. X



Besteak beste, Labriteko bastioiaren eta Media Lunaren arteko lotura landuko du *Viaje*-k.

LUIS AZANZA

Gauza bera gertatzen da Oizen ustez Iruñeko Katedralaren ondoko San Jose plazan. «Funtsezkoa da katedralaren ondoko etxeak botatzea plaza harresia-

rekin konektatzeko, harresiaren berezko espazio hori zabaltzeko». Horrela, gainera, Iruñeko Katedrala nabarmentzea lortuko luke, Oizak dioenez.

Viaje proiektuaren bidez, harresiaren eta bere inguruko eraikin enblematikoen arteko espazioa edo bereizketa aldarrikatu nahi izan dute egileek. X

Xanti Begiristain

Ez negoziatzeak sufrimendu gehiago dakar

■ Azken bolada hau benetan oso tragikoa gertatu da gure gizartean eta ondokoan. Ez dakit nola jarraituko duen, baina momentuz behintzat, oso egun gutxitan zazpi hildako izan dira, eta ez nolana hikoak. Niretzat, inolako zalantzarik gabe, guztiak izan dira Euskal Herri honetan jasaten dugun egoera politiko bidegabearen ondorio garbiak.

Alde batetik Granadan, Madrilen eta Tolosan erahil dituzten ileapaintzailea, Martinez Emperador magistratua eta Patxi Arratibel, hurrenez hurren, gehi aste bat lehenago bizikleta saltzaile zen gizona, gaizki ez badut gogoratzen. Eta bestetik Jose Maria Arantzamendi preso politikoa, Eugenio Aranburu Herri Batasunako Mahai Nazionalako kidea eta Iruñeko Unai Salanueva intsumisoaren heriotzak.

tuek, kale borrokak, bahiketek, alde bateko eta besteko kontzentrazioek, intsumiso espetxeratuak, atentatuak eta abar, eta abar.

Egoera oso gogorra eta latza da. Nork ez ote daki. Alde askotako indarkeria dago: gobernuena, Polizia, Guardia Zibila eta Ertzaintzarena, ETArene, kale borrokarena, eta bat eta beste. Arazoa zail eta konplexua da. Justizia ez da berdina guztientzat, eta hori frogatzeko makina bat adibide dago. Hitz gutxitan esanda, gatazka hementxe daukagu; ezin diogu ihes egin. Sufrimendua gero eta banatuagoa dugu, eta begiak itxita ez dago arazoa konpontzerik. Ez eta indarkeria gaitzetsiz eta kondenatuz soilik ere.

Espainiako Gobernuko pertsona batek esan omen du ETA suntsitu behar dela, baina nik uste dut arazoaren koska ez dagoela horretan bakarrik.



Lehendabiziko lauren herioak, seguru asko, ETA erakunde armatuak hartuko ditu bere gain beranduago, eta beste hiruren heriotzak nik uste dut ezin dela ukatu izan direla egoera politiko nahasi eta gatazkatsu honen ondorioz.

Hasteko, Jose Maria Arantzamendiren urkaketan, Alcalá Mecon. Ikusten da irregularitasun eta gauza susmagarri asko gertatu direla, alegia, hasiera batean ezkutatu nahi izatea begiak estaltzea zituela, eta era bertsuan, hankak eta eskuak lotuta zeuzkala. Gainera gorpua bahitu zuten legez kanpo, eta familiak aukeratu zuen sendagileari ez zioten utzi han egoten, hildakoari autopsia egiten zioten bitartean. Horrek guztiak, jakina, jende asko eraman du pentsatzera hor zerbait zikina gertatu dela eta Barne Ministerioak zer edo zer ezkutatu nahi duela.

Jarraitzeko, Eugenio Aranbururen ustezko buru-hilketak ematen du zerikusituzena duela estatuko espetxeetan nozitzen den gogorkeria eta injustziarekin, eta beste horrenbeste esan genezake, inolako zalantzarik gabe, Unai Salanueva intsumisoaren bere buruaz beste egiteari buruz.

Momentu honetan ezin dugu ahaztu HBko Mahai Nazionalako partaidea guztiak espetxeratzen ari direla Espainiako Barne Ministerioa eta dagokion epailea, modu bidegabe batez, adierazpen askatasuna defenditzeagatik, besteak beste.

Laburbilduz bada ere, esan behar dugu indarrean jarraitzen dutela preso politikoen sakanaketez, tratu txarrekin, atxiloteta indiskrimina-

Hara, ETAK bortxakeria sortzen du, bai, baina indarkeria hori ez da arazoaren arrazoi baizik eta dagoen gaitz baten adierazpide eta sintoma; hau da, arazo politiko bat dagoelako Euskal Herrian daude ETA erakunde armatua eta gainerako ondorio guztiak. Nik uste dut onartu behar dugula hori, eta era berean onetsi ETArene izatea eta bere benetako helburu eta asmoak politikoa direla. Hortik abiatuta, konponbiderik hoberena eta bakarra, zinezkoa, negoziazioa izan litezake. Horretarako, noski, gobernuak eta ETAK gutxienez hasi behar luke elakrriketan modu isil eta diskretu batez, hitzarmen negoziatu eta itundu batekin bukatzeko.

Printzipioz, ulertzen oso erraza da: arazo politikoa neurri politikoz konpondu beharra dago.

Jaime Mayor Oreja, José Maria Aznar, Miguel Sanz eta beste asko amorratzen dira esanez ETArekin inoiz ez dutela negoziatuko. Nik uste dut erdi-erditik daudela okerrean, eta erabateko inobilismoan erortzen direla. ETAK egina dauka aspaldian bere proposamen serioa. Orain erantzukizunik handiena boterean direnek dute. Bakea, bakar-bakarrik egiazko justiziatik etor baitaiteke.

Batzuek diote ETAK su-etenik ematen ez duen bitartean ez direla berarekin elkarrizketatuko; nik alderantziz uste dut, hots, gatazka pil-pilean dagoenean orduan inoiz baino premia handiagoa dago istiluak hitz eginez ebazteko. Gero zertarako? Hor ikusten dut itxaropen bakarra. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sakan mix III: Blas Alegria Lakuntzarraz (eta III)

■ Aurreko bi astetan hasitakoari amaiera eman nahian bihoaz orain Blas Alegriaren gaineko azken oharren ondar mondar hauek. Gure ama izenburuko idazkiari berriz ere lotuz, eta hartan agertzen diren euskal idazleen nahiz erdal euskaltzaleen zerrrendeetako berri zehatz oparoak gogoan harturik, zera esan behar dugu, gure zalantzak baditugula Alegriaren lan honen jatoriasunari dagokionez. Azalduko dugu. Honezkerok agertu zaigun Migel Intxaurrendok —Alegriaren Aña Mari antzertilanaren zensore eta Apezgaitegiaren euskara irakasle hura— urte batzuk lehenago kaleratu liburu batean, zerrrenda ber ber hauek jada argitaratu eman zituen, igualak, erderaz baina. Idazki hau 1926.eko *La iglesia y el euskera: obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla* izenburuko dugu. Pezeta bakarria balo zuen hau Iruñeko gotzaila zen Mateo Mugika eta Nafar Aldundiari eskeini zien. 1926/27 ikasturteari hasiera emateko apezgaitegi kontzilarrean egin ekitaldian irakurritako hitzaldia dugu hondarrean. Leon Leonek iruzkin ezin baikorragoa egin zion 1927.eko *Gure Herria*-n: «Ez dakit ene idurikoak diren berteak, baina orai arte haize hegoa enuen gutienik maite. Zertako? Kaskoa erhausten dautalokotz. Baina iragan astez geroz buruko min guziak barkatuak diozkat. Erran zaharrak diona, emaitzek harroka hausten eta guritzen dutela, egia bada, egun hautan hegoak egin emaitzak nondik nola enituen hautsiko eta gurituko, enizenaz geroz ez harroka, ez harria, ez eta harrigarria? Asma hegalpean zer ekarri dautan? Liburu bat, liburuño bat, bere hatsa bezain beroa, beroa bezain bihotz altchagarria, eta eskuarari buruz zerbait ari direnentzat zinez sustagarria».

98 orrialdetako lan maratz eta zaindua dugu. Orriazpian datzan oharregi zabalak erudizio handia salatzen digu. Lehendabiziko zatian herriari bere hizkuntza hitzegiteko beharraz dihardu, eta bigarrenean berriz herri hizkuntza sakontzeko apezek duten artaz. Bi gehigarri dakartza. Bata garaiko euskaltzain, euskaltzale eta euskal idazle zerrrenda luzea eta bestea apezgoarendako komenigarriak datezkeen hainbat idazki eta liburu. Bi gehigarri hauek lirakeke Alegriak pirateatutakoak horren nabarmenki. Dena den, Intxaurrendok lagunak onarturik zatekeela bagaude. Gizon honengana iritsirik ordea, derragun Migel Intxaurrendok Arriaran Aratz aldeko Arriben 1897.ean jaio zela, Iruñean apezte eta Etulainen erretore aritu zela, eta 1926. urteaz geroztik Iruñeko apezgaitegiaren euskara irakasle ihardun zuela lau urtez. Gerrate zibilak Madrilen harrapatu zuen eta Gineara bidaltu zuten ostean kapelau. Ginean ibili ostean, Kartagenan eta Puerto Ricoko Humacaon izan zen. Azken honetan zendu zen 1979.eko maiatzaren 28an. Alpatu lanaz gainera euskara ikasteko *Metodo práctico del euskera* ondu zuen, Iruñean, San Zernin karrikan Jose Aramendiak zuen moldetegiaren, 1928.ean.

Zensorea etzen edonor, bada Blas Fagoaga izan baitzen liburu zuzentzailea, eta jaso kritikak oro hagitz onak izan ziren eskuarki, guzietan beroenetakoa Henri Gavelek zuzendu ziona: «Ce livre représente un travail des plus méritoires, et nous paraît appelé à rendre d'éminents services pour l'enseignement du basque en Haute-Navarre». Gramatika, guziarekin, zaildugeia zekarren, hitanoaren aldaerekin ere, eta jasotzen zuen euskara eredu gaitz gehien gipuzkera-nafarrera izan arren, hainbat ekialdeko ikutuak bazituen. 450 inguruko aleki honi erdal-euskal hitzegi batek ematen dio amaiera. Olerki mailan ere, erdal olerki bat agertarazi zuen 1924.eko *Euskal Herriaren Alde* aldizkarian: «Sembrando el trigo marzal». Etulainen egina, eta euskal olerki bat 1926.eko *Euskal Esnalea* donostiarran, Iruñean egina ordea, «Aingeruaren litzean»: «Amatxo, amatxo, amatxo / Batek erran dit belarrira / Amatxo, amatxo, amatxo / Berekin juaiteko gotira. Semetxo, semetxo, semetxo / Dakuskizun oye... nun dira? / Oi zoinek dautsu erran semetxo / Yuaiteko ayekin belarrira».

Hitzegigintzaren arloan Euskaltzaindiari *Palabras vascas que no se encuentran en el diccionario V.E.F. del sr. Azkue* izenburuko zazpi orrialdetako hitz zerrrenda laburra igorri zion, Arantz, Goizueta, Larraun, Lesaka eta Baztanen bilduak zirenak. Azken orrian Azkuek berak erantsi zuen: «Hay otra remensa del mismo que contiene 47 palabras», baina oraino ez omen da ageri. Azkenik, Silbia Baleztena Azkarateren Jerusalem erdal saioa euskaratu zuen, baina tamalez ezin izan zuen argitaratu gerratea zela eta. Honetan Palestina alde hartaniko Espainiako konsularren emaitzak bizitakoak jasotzen dira.

Sakanako sako luzera itzuliz, eta Alegriaren lanekin ahitzekoz, 1932.eko sariketan *Costumbres, justas y regocijos de la zona euskérica de Navarra* sailerako «Egi eta fedeak» izenpean arkezutu Jolas urrina alpatu behar dugu. Honetan ere 1.000 pezetako saria eskuratu zuen. 1933-34.ean ospatu laugarren sariketarako, eta *Folklore en euskera* zeritzaien bostgarren sailerako *Atsegina* izenburuko igorri zuen «Gogoz eta legez» lemapean. Alabainan urte horretako politika aldaketarekin, ez zuten ez eta lana irakurri egin. Egia esateko, hau izan zen Olabe sariaren euskarazko sailaren akabaera.

Guziarekin olerkari bezala egin zituen beste lan batzuk baditugu frugal oraino: *Olliteko gaztelua* olerkia, *Biotz mina* San Sebastiango ermitari eskeini olerkia bere erdal aldaera den *Añoranza* delakoa-ekin, eta Lakuntzako Agotza etxean oraino dituzten bere bertso batzuk ere. matatxerriaren inguruan eginak diren *Berso berriak*: *Belarri bakarrek zeri bromazalla* deitutakoak eta 1945.eko urtariraren 25.eko data daramatenak hots, Halaber Ulaiar jaunak 47 bat sermoi idoro zituen, datarik gabekoak, eta beste antzertilan bat izan zitekeen baten egiteko eskemak, San Migel Aralarkoaren inguruan. ■

* ◆ **Lucja Nowak** ◆ Zielona Gorako abesbatzako zuzendaria

s o s l a i a

«Polonian folklorea galtzen ari da»

J oan den igandean iritsi ziren Leitzara Zielona Gorako (Polonia) Musikaren Pedagogia Eskola Nagusiko abesbatzako kideak, 24 neska lau irakaslerekin. Astelehenean Iruñean eskaini zuten kontzertua, asteazkenean Donostian eta atzo Lizarran. Gaur, berriz, etxerako bidea hartu aurretik, Leitzan abestuko dute herriko Asketa abesbatzako kideekin batera.

Edurne Elizondo / Iruñea

ASTEARTEAN Donibane auzoko El Huerto elizan kontzertua eskaini aurretik, Gaztelu plazako Iruña kafetegian hartu gintuen Lucja Nowak. Elkarrekin bazkaldu zuten poloniarrek eta leitzarrek. Vitol Dors itzultzailearekin eta Nafarroako Abesbatzen Elkarteke hainbat kiderekin.

■ **Zielona Goratik nola ailegatu zarete Leitzara? Nola sortu da zuen eta Asketa abesbatzaren arteko harremana?**

Leitzara Asketa abesbatzako gonbidatuta iritsi gara, eta gero, eurek eginen digute bisita Polonian. Gure arteko harremana laz sortu zen. Abesbatzako kide batak Leitzako gazte bat ezagutu zuen Gallzian, gazte musikari biltzar batean, eta horrela sortu zen harremana. Leitzar hori Erroman dago orain eta berarekin mintzatu ginen abesbatza Nafarroara etortzeko aukeraz. Asketa abesbatzako zuzendari Juan Bautista Irazokirekin hitz egin eta dena prestatu genuen.

■ **Leitzan, bertako abesbatzako kideen etxeetan zaudete, zuek hala eskatuta. Zer moduz?**

Hagitz kontent gaude. Bertakoekin etxeetan bizi nahi genuen hemengo bizimodua eta hemengo ohiturak ezagutu nahi genituelako, gertutik, benetan ikusteko hemengo jendea nola bizi den. Eta esperientzia oso ona izaten ari da. Leitzarrak hagitz ongi ari dira portatzen gurekin.

■ **Zuretzat, zuzendari bezala, garrantzitsua al da beste herrietako abesbatzekin harre-**



Zielona Gorako Pedagogia Eskola Nagusiko abesbatzako zuzendaria da Lucja Nowak.

LUIS AZANZA

mana izatea? Zer ematen dizu harreman horrek?

Hagitz garrantzitsua da. Niretzat funtsezkoa da beste kultura batzuk ezagutzea, eta baita musika egiteko edo abesteko beste modu ezberdinak ezagutzea. Gainera, guztiok ari gara musika ikasten eta beste moduak ezagutzea inportantea da. Batez ere ikasleentzat, euren irakaskuntzan halako esperientziak oso aberasgarriak baitira. Musika irakasle izateko ikasten ari dira eta hau oso lagungarria izan daiteke beraienentzat.

■ **Abesbatzei dagokionez, ezberdintasun handiak nabaritu al dituzu zuen herriko eta hemengo artean? Abesbatza zuzentzeko moduan ezberdintasun handirik dagoen ezin dut oraindik erran, ez baitut Leitzako abesbatza lanean ikusi oraindik. Baina**

gauza bat erran dezaket, hau da, atzo Juan Bautistarekin egon nintzen Sorozabalen Matte entseatzan, hemen obra hori abestuko dugulako, eta hor ikusi nuen, sentitu nuen, ohiturak ezberdinak direla hemen, eta obra hori ongi abesteko, beharrezkoa dela hemengo izpiritua ezagutzea. Nik uste dut asko ikasiko dugula musika hemen nola bizitzen duten ikusiz.

■ **Iruñea, Donostia eta Lizarrako kontzertuetan ezezik, Asketa kideekin batera abestuko duzue Maite Leitzan ere. Zer deritzozu?**

Irrikitzen gaude, oso pozik aukera hori izanen dugulako. Gainera, uste dut, izaera eta tenperamentu aldetik antzekoak gara, beraz, esperientzia polita izan daiteke. Gu, beti ere, asko ikasteko prest gaude.

■ **Zielona Gorako Pedagogia Eskola Nagusiko abesbatza zarete. Zer-nolako taldea osatzen duzue, zeintzuk dira zuen ezaugarri garrantzitsuenak? Hasteko, erran beharra dago**

abesbatza gaztea garela, hiru urte besterik ez daramagu lanean. Eskolan hiru abesbatza dago eta ikasleek, derrigorrez, horietako batean egon behar dute. Horietako bat gurea da, neskek osatzen dutena.

■ **Eta erreperitorio aldetik, zer abesten duzue?**

Egia erran, denetarik, abesbatza oso aberatsa da alde horretatik eta gogoko dugu, guztia harapatzen saiatzen gara. Antzinako musika, musika klasiko abesten dugu, baina baita modernoa ere. Lituaniaraz ere abesten dugu. Laz, urrian, bertan izan ginen hango abesbatza batekin ere harremana dugulako eta han entzun genuen abesti bat asko gustatu zitzaigun eta guk ere abesten dugu. Honek zentzu berezia du neretzat, Lituaniar jaioa bainaiz, eta atsegin dut.

■ **Abesbatzako kideek musika irakasle izateko ari dira ikasten. Musikaren irakaskuntza nolakoa da Polonian?**

Haurrak haurtzaindegian hasten dira musika ikasten, hiru

Zielona Gorako Pedagogia Eskola Nagusian abesbatza zuzendaritzako irakaslea da Lucja Nowak. Polonian bizi da eta han egiten du lan, eta bertakoak ditu gurasoak, baina Lituaniar jaiotza eta hazi da Lucja Nowak. Ikasketak amaituta ailegatu zen Poloniarra.

Nesken abesbatza zuzentzen du, eta 24 ikasle ditu bere kargu, aste osoan leitzarren artean bizi izan direnak, alegia. Irakasle lana egiteaz gain, doktoregoa prestatzen ari da Lucja Nowak.

Lucja Nowak pozik etorri da Nafarroara bere ikasle eta beste irakasleekin batera. Harentzat funtsezkoa da beste herrietako musika eta ohiturak ezagutzea, batez ere gure ikasleentzat, hagitz garrantzitsua baita euren ikasleentzat.

urtekin. Ondoren, zazpi eta hamabost urte bitartean Lehen Hezkuntzan daudenean, derrihorrezkoa da musika ere, eta Bigarren Hezkuntzan aukerakoa. Ikasketxeetatik kanpo ere, noski, bada musika ikasteko aukera, kontserbatorioan sartzeko. Eta irakasle izan nahi baduzu, Eskola Nagusia dago ere. Bost urtez ikasten da bertan.

■ **Musika, beraz, ogo garrantzitsua da irakaskuntza orokorrean.**

Bai, baina orain gauzak aldatzen hasi dira, nahiko zaila da egoera. Ikasketxeetan gero eta ordu gutxiago eskaini nahi diote musikari eta irakasleak borrokan hasi dira erabaki hori atzera bótatzeko. Hemen, Nafarroan, nabaritu dugu jendeak gerri abesti asko ezagutzen dituela eta abesten dituela, baina Polonian, hau desagertzen ari da, folklorea galtzen ari da. Eta hau lotuta dago irakaskuntzan musikarekin gertatzen ari den guztiarekin. x

«Ikasleentzat oso garrantzitsua da beste herrietako musika eta ohiturak ezagutzea»

PANE LUCRANDO

ZALDI ERDA

